

EUSKERAZKO ESKUTITZAK

Aita Jose Ignazio Arana Jesuitak Bonaparte Euskalariari, eta Printzipe Jakintsu onek Aita Aranari

Igaro dan gizaldiaren azkenaldeko euskal eskutitz bi ematen ditut emen. Lenbizikoa Aita Jose Ignacio Arana Jesuita (Azkoi-tiarra jajotzez: 1838, † Oña'n, 1896) -rena da, Bayona'n idatzia, 1876'gn. Urri'ko 23'an. Zazpi egun geroago (Urri'ko 30'ean) egiña da, Londres'tik, Luis Luziano printzearen erantzuna.

Aita Arana'k Bonaparte'ri idatzitako euskal eskutitz batzuk ezagutzen ditut, eta eskuartean ditut oraintxe bertan (1). Beste era batean argitarazeko asmotan nago. Erderaz eskutitz asko idatzi zituan Bonaparte'k (2). Euskeraz egin zituanak, berriz,

(1) Bayona'tik egindako au, eta beste bi. Loyola'tik 1884'garren urtekoa eta Durango'tik, 1887'garrenekoa. Gipuzkoa'ko Diputazioa da iru eskutitz auen jabe. (Manuscritos de Bonaparte. Paquete núm. 10. "Diversos poemas", etc.).

Ikusi *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian Pedro Garmendia'k eman zuen arkibidea, Georges Lacombe'ren oar labor batekin. (Tomo XXIV, núm. 2, Abril-Junio 1933, pp. 138-148).

(2) Ikusi aldizkari batzutan argitaratu diranak: Julio de Urquijo: *Cartas escritas por el Príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores*, "Revue International des Etudes Basques", II (1908), 215-221, 655-659; IV (1910), 233-297 (Berrogei ta bat eskutiz, Elizondo'ko Bruno de Echenique eta Garmendia'ri). Georges Lacombe: *Quatorze lettres inédites du Prince Louis-Lucien Bonaparte au Comte de Charencey*, RIEV, II (1908), 775-786. *Briefe des Prinzen L.-L. Bonaparte an H[u]go*. Schuchard, RIEV, III (1909), 133-139. (Bost eskutitz). *Lettres du Louis-Lucien Bonaparte à Don Arturo Campion*, RIEV, XXIII (1932), 192-198; XXIV (1933), 304-313 (Georges Lacombe'k ematen ditu, amasei eskutitz). *Lettres du Prince Louis-Lucien Bonaparte à Wentworth Webster*, RIEV, XXV (1934), 316-322 (Philippe Veyrin'ek ematen ditu lau eskutitz). *Carta de S. A. el Príncipe Luis Luciano Bonaparte*, "Euskal-Erria", VIII (1883), 404. *Carta lingüística* "E-E". IX (1883), 261-265. *Carta lingüística*, "E-E", IX (1883), 485-489. *Carta de S. A. el Príncipe L. L. Bonaparte*, "E-E", X (1884), 144. *Manuscritos bascos de Lord*

gutxi izan bear, agiri danez (3). Mañari'ko Jaun ospetsu Ebaristo Bustinza'tarra ("Kirikiño" euskal-literaturan) izan zan emen ematen detan Bonaparte'ren eskutitz orren jabe. Basile Bustinza'tarra, "Kirikiño"-ren andre alargunak gorde du igaro diran urteetan. Frantziya'ko Banko batean egon da gordeta gerra denbora inguruko urteetan, eta gero Mañari'n berri. Elorriyo'ko Jaun Andoni Elorza'tarra da orain bitxi orren jabe (4).

Itzez-itzez eta lerroz-lerro artu ditut izkribuak, eta dauden daudenean ipintzen alegindu. Oarren bitartez azaltzen ditut tildeekin agertzen diran letrak (5).

1.

†/Bayonatik Urriaren 23-n. 1876-n./Lenenkoi L. L. Bonaparte, ta jaum [sic] an-/dizkietakoen: / Ez da egun asko, Duvoisin jaun/adiskidearen bidez, berorrek arestian argi-/taratu duen liburuko edo orralde bat artu/eta pozik iracurri dedala. Milla eskeron / bialtzen diozkat beragatik; baña batez ere gure Euskara maite anziñakoaren aldé, añ / ederki ta galaiki bertan itzegiten duelako; Mr. / Hovelaque, [sic] Van-Eys ta antzekoen utsegi-teak / berdiñ desegiñic, eta ceaturik arras. Egia da, / jauna, oyek (6) eta beste asko ta askok, Euskera / obeto icusi ta geiyago ikasi egingo balukete, / ez litezkeala numbait añ ariñ beraren ga- / ñean mintzatuko. / Nic cer eskeñirik ezer-utsa det berori be- / zalako jaun aundi ta jakintsu bati; baña / ala ere, nola Loyola-ko liburutegiaren contuba / izandu nuen, eta ango paper zarrak cearocho / icusmiratu bai-nituben aspaldi, balitzake berorrek oso / ez dakizkien berriren batzuek Aita Larramen- / diren edo beste Euskera-gauzachoan batzuen / gañean, nai baldin badu, noiz-edo-noiz eman / al-izatea. Beste egiteko bearrago ta

Macclesfield, "E-E", XII (1885), 87-88. (Bonaparte'k J. Rhys jaunari eskutitza). *Carta de Bonaparte al Director de "Euskal-Erria"*, "E-E", XIII (1885), 399. *Carta del Principe Bonaparte a D. Arturo Campiñ*, "Revista Euskara", IV (1881), 190. *Une lettre du Prince Bonaparte*, "Gure Herria", 1928'gn. urt., 3'gn. zenb., 193-196 (Inchauspe Kalonjeari). *Une lettre du Prince Bonaparte*, 1928'gn. urt., 5'gn. zenb., 427-429 (Inchauspe'ri)...

(3) Donostia'ko Diputaziñoa'n gordetzen da Printzipeak bere eskuz 1882'gn. urtean Londres'tik egin zuen eskutitz baten borradorea euskeraz, lap'zez. Iñun ere ez det ikusi argitara emanda. "El Bidasoa"-n eman nuen igaro dan udaran (628'gn. zenb., 1957-VIII-24). BRSVAP aldizkarian ere agertuko da, aurtengo zenbakien batean, J. I.

Donostia'ko "Euskal-Erria" aldizkariaren artezkari izan zen Manterola jaunari egin zion zerbait euskeraz. Ikusi "Euskal-Erria", T.º I (1880), 201'gn. orrialdean.

Bizente Arana'ri Londres'en egin zion txarteltxo bat ere ezagutzen degu. Ikusi "Euskal-Erria", T.º XIX (1888), 503'gn. orrialdea.

altubago- / choak badabilzkit nere escutartean; baña, alaz / guziaz ere, euskalduna naizan-ezkero, eta chi- / ki ta kaskar (7) banaiz ere, Mendiburu ta Cardabe- / raz ziranaren oñordekoa; Euskera ta Euskal-erri- / aren alde ta onerako zerbait sayatzea, ongi di- / rudi izan-ere. / Gaurdañokoan lau eskribualdi edo liburu koskor (8) / bakarrak nereak agertu diradé gai onetan. Emen barruan / dijoakion liburuchoa, aiskide (9) bik Erroma-n ar- / gitarazi zutena da. Beste paper bi-izkunza- / takoa, Plazaola deritzayon jaun batek euska- / ratu, eta nik ondoren piskacho-bat (10) icutuba. / Iparragirre-ren neurtitzak edo bersoak aurtien- / goak ditu. Eta gañera dijoakio A. Larramen- / di zananen bizitzako eskuskribu baten arkibi- / dea. / Jainko gure Jaunak deyola berorri bere gra- / ciya ta lagunza ugariya, kristau on bati dao- / kion Zeruzko jakinduriyarekin; eta Euskera-gana- / ko duen erezi noble aspaldiko ori, osasunarekin / batera, egunetik egunera geitu deyola. / Begiramendu guziarekin; bere mirabe, sei, / morroicho, serbitzari ta capillau nazayon, Jesus- / en Lagundi edo Compañia-ko / Aita Arana Jhs. [zirriborrua] / Zuzembidea.- / (Bases Pyrénées) / Mr. l'Abbé Arana. / Rue d'Espagne, 25. 2.e / Bayonne.

2.

6 Norfolk Terrace, [...] / Bayswater. [...] / Londrestik Urriaren 30-n, / 1876-n. / Nere Aita / Berorren karta eta liburuchoa / eskuetara etorri zaizkit, eta oyergatik, / eta aspaldian bialdu zizkidan besteen / gatik milla esker dizkiot. *Meglio / tardi che mai* "berandu obe da / iñoiz baño", diote florenziatarrak. / Esan oni narragola, orain egiten / dedana lenago egin izan bearko nuela, /

Sara'n Axular'en illobian ipini zuen uarritza ezaguna da oso. Bonaparte'ren beste euskal-izkriburik ez det ezagutzen, oar laburren batzuk izan ezik.

(4) Julio de Urquijo jaunak eman zuen eskutitz au "R. I. E. V." aldizkarian (T.^o VII (1913), 192^{gn}. orr.). Igaro dan iraillean bi bidar joan nintzan Elorriyo'ra eskutitz au ikusi ta kopiatzeko asmotan, eta ala egin nuen Eparza jaunari eskerrak. Urquijo jaunak emandakoan agertzen ez diran oar batzukin geitzen det oraingoan. Oar oiek nork egiñak diran ez dakit.

(5) Morau-koloreko tintaz, oar bat: "(arana).".

(6) Garbi ikusten d'ra Arana'k berak egin zituan zuzenketa batzuk, c letraren gañian k jarriaz: oyec=oyek, zarrac=zarrak, izkunzacoa=izkunzatakoo bersoac=bersoak, nic=nik.

(7) Kaskar=s tildeduna.

(8) Koskor=s tildeduna.

(9) Aiskide=s tildeduna.

(10) Piskacho-bat=s tildeduna.

gogotik aitortzen det. Jesusen / Apaiz-Biltzarreko Larramendi berria, (11) / Aita Aranak, nere lanchok ontasunez / begiratuak izan dirala, chit / atsegin det. Emendik amabost egunera, (12) / Berorri; nere ustez, gustatu bearko litzazkiokela (13) / liburu batzuek Bayonara bialduko / diozkat. Oyen eskeñian ikusibeza, / otoi, Berorren ganako gogo on / daukana / Bere zerbitzari / ta adiskidea / L L Bonaparte [zirriborrua] (14).

N. ALZOLA

(11) Tinta-gorritz oar bat: "+berri".

(12) Tinta gorritz, beste oar bat: "ean".

(13) Tinta gorritz, beste gañerako oar bat: "+ko".

(14) Eskutitz au tinta moraduz egifia da, eta 0'28 x 0'30 ditu neurritz.